



## Adikzioei buruzko lege-proiektua (laburpena)

Eusko Legebiltzarrak parte-hartzeko plataforma honetan kokatzen duen Adikzioei buruzko Legea oso lege zabala da, eta azpimarratu nahi genituzkeen hainbat gai berri ditu.

Lehenik, Adikzioei buruzko Legeak adikzioetan eragina duten eremu guztiak ikuspegi integral eta zeharkako baten bidez egokitu eta eguneratzeko beharrari erantzuten dio, eta berritasun aipagarri gisa hezkuntzan eta prebentzian jartzen du arreta.

Arlo horretako ohitura eta mehatxu berriei egokitu beharrak, bestalde, aurretik araututa dauden substantziei (hala nola tabakoa, alkohola eta droga ilegalak), beste mehatxu eta ohitura batzuk gehitzera behartzen du, hala nola "bapeoa" eta "botiloia", besteak beste. Lege honek zabaldu egiten du adikzio kontzeptua, eta portaerazko adikzioak ere jasotzen ditu (sare sozialak, bideo-jokoak...), eta aurreikuspen bat ere uzten du adikzioetat har litezkeen bestelako portaera batzuetarako (elikadura konpultsioa, ariketa fisiko eta lan-jardun neurrigabeak...).

Bigarrenik, lege honek, zehapen arloko arauketa ahaztu barik, bereziki prebentzian jartzen du arreta nagusia, substantzia edo portaera adiktiboetarako sarbidea atzeratzeko eta osasunaren, moderazioaren eta ohitura osasungarrien kultura sustatzeko.

Legeak 97 artikulua dauzka, zazpi titulu eta zazpi xedapenetan bilduak. Atariko tituluak printzipioak, helburuak eta definizioak jasotzen ditu, beste gai batzuen artean.

Lehenengo titulua da legearen zatirik berriena, azpimarra jartzen baitu osasunaren sustapenean eta adikzioen prebentzian. Legearen diziplina anitzeko ikuspegia askotariko eremuekin lotzen da. Hezkuntza arlotik familia arlora, beste hainbat arlotatik pasatuta (komunitatea, lan arloa, justizia, hirigintza eta, garrantzia bereziarekin, komunikabideen arloa eta sustatze-lan komertzialaren arloa), halako eran non adikzioak sorrarazteko modukoak diren jokabide eta substantziekin zerikusia duten establezimenduek funtsezko papera jokatzen duten. Lege honek, gainera, gainerako eragile inplikatuak ere prozesu prebentibo eta korrektiboan integratzeko neurri batzuk proposatzen ditu. Hori guztia ohitura osasungarriak ezartzeko eta substantzia eta jokabide adiktiboetarako sarbidea atzeratzeko helburuz.

Bigarren tituluak, berriz, eskaintzaren murrizketa jasotzen du, eta hainbat muga ezartzen ditu adikzioa sortzeko modukoak diren substantzia edo zerbitzuen sustapen, hornidura, salmenta eta kontsumorako, eta garrantzi berezia eskaintzen dio publizitatearen arauketari.

Hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren tituluak osasun-sorospena eta gizarteratzea definitzeaz arduratzen dira, eta adikzioak dituzten edo izateko arriskua duten pertsonenganako sorospena arautzen dute, bai eta koordinazio instituzionala eta planen egituraketa ere Euskadi mailan, lurralde historiko bakoitzean eta udalerrri bakoitzean.



Azkeneko tituluak, zazpigarrenak, arau-hauste eta zehapenen erregimen osoa biltzen du, eta beste hainbat gai eransten ditu, hala nola berrerortzea, errepikapena edo graduazio eta zehapenen zenbatekoa.

Legea xedapen gehigarri batzuekin amaitzen da legegintza-esparru orokorra segurtatzeko, zeharkako lege bat baita hau.